

Forondatik Prateko aireportura

**Miren Azkarate
Badiola**

Lerro hauek Kataluniako *procés* auziaren epaiaren biharamunen idazten ditut. Espainiako Auzitegi Gorenak 9 eta 13 urteko espetxe zigorrak ezarri dizkie lurralde hartako politikari eta mugimendu zibileko hainbat kideri. Ez, tamalez ez dut sorpresaz hartu albiste, Euskal Herrian batzuk oso ezagunak ditugulako Audentzia Nazionalak eta Estatu espainiarrak berak eragindako injustiziak. Urrutira joan gabe duela egun gutxi Altsasuko gazteen epaia jaso genuen eta gaur 36 urte La-

sa eta Zabala bahitu, torturatu eta erail zituen Estatuak. Badakigu bai zertarako diren gai.

Orain entzun nahi nituzke nik urte luzez herri honetan aho bete eta puztu-puztu «bonbak edo bozak» edo «biolentziarekin ez da ezer lortuko, bide politiko eta demokratikoetatik bai» esaten zuten horiek guztiak. Ikusten denez, bide batetik eta bestetik, oraingoz, behintzat, emaitza berdina da: kartzela eta errepresioa.

Hala ere, esperantzarako leiho bat badela erakutsi didate katalanek. Be-

giak komunikabideek eskaintzen dizkiguten irudietan ditut iltzatuta: Prateko aireportua jendez lepo. Hor dago garaipena, herrian. Tsunami hori ezin du Estatu espainiarrak berak ere gelditu, denbora kontua da.

Hunkituta eta sekulako inbidiarekin bizitzen ari naiz ematen ari diren erantzuna, hori hemen ezinezkotzat jotzen baitut. PNVko agintari eta boz emaileak urtean behin Forondako zelaietan bakarrik ikusten ditut “independentzia” oihukatzen, eta horrela ez gara urrutira iritsiko. •

Ekologia, ideologia

Antton Izagirre

Ekologia eta klima larrialdia modako kontzeptuak bihurtu zaizkigula dirudi. Kontu berriak ez diren arren, horrelakoetan gertatu ohi den modura, ia inork ez du gertatu nahi izaten joko zelaitik kanpo eta bere tokia finkatzera mugitu dira eragile desberdinak, argazkitik at geratzearen beldur.

Greta Thunberg klimaren aldeko ekintzaile suediar gaztearen agerpenak, eragin mediatikoa tarteko, larrialdiaz ohartarazten ari zitzaizkigun zientzialarien ikerketak baino kontzientzia gehiago astindu ditu. Munduko lurralde desberdinetan erailak izan diren dozenaka ekintzaileen heriotzak baino oihartzun handiago izan du gazte ho-

rren protagonismoak. Agintari gorenek ere alboan izan dute eta haren egiak txalotu dituzte. Hark hauspotuta milaka gaztek kaleak hartu dituzte.

Klimaren, beroaldiaren, mundu honen biziraupenaren, mundua larrialdi egoeran sartu denaren kontzientzia hartzeko balio izan duelakoan, orotara, ontzat eman dugu Thunbergen agerpena. Kritikak kritika, klimaren aldeko aldarria berpizkunde baten antzeko agerrialdia izaten ari da eta guztion ardura den uste hori ondo legoke, horrek gure egunerokoan ondorio praktikoak ezarriko balitu.

Baina erantzukizunak ezin ditugu modu berean banatu; orain kezkatzen gaituzten galerak, ez baititugu modu

berean eragin guztiok. Alferrik lirateke gure asmo on guztiak, ekologiaren eta larrialdiaren nondik norakoak ideologiaren galbahetik pasa gabe. Garbi salatu behar dugu botere ekonomikoek eta politikoez auzi horretan duten erantzukizuna.

Horrela egiten ez badugu, gerta liteke jendeak txaloka hartzea Asensio Gipuzkoako foru diputatua, erraustegiaren bultzatzaile sutsua, klimaren aldeko manifestazioan parte hartzean, edo EAJ, AHTren eraikitzaile nagusia, alderdi egunean klimaren aldeko aldarria egitean edo Imaz, Petronorren kontseilaria bateria-kargagailuaren inaugurazioan. Horrela balitz, sakoneko aldaketatik baino, modatik gehiago izango luke. •